



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Errealeko jokalariek eta Euskaldunen Egunkariako ordezkariak sarria jasotzeko unean

Sagardoaren Mezulariak sarria jaso dute Errealeko jokalariek

► Sagarrondotik jaialdiaren harrera ekitaldian egin zen sari-banaketa

Sagarrondotik 2004. jaialdiak sarriak banatuaz hasi nahi izan zituen aurtengo ekitaldiak. Sagardoaren Mezulariak sarriak sagardoaren izena, eta berekin dakartzan euskal

kulturaren alderdiak, europar barrena zabaltzen dituen erakunde edota elkarte oro sarritzea du helburu. Aurten iaiz eginiko lana dela eta, Erreala izan da sarria poltsikoratu duena.

Maidier EIZMENDI

URNIETA

«Gipuzkoaren izena eta bide batez sagardoarena europar barrena ezagutarazteagatik», horrexegatik, hain justu ere, erabaki dute Sagarrondotik jaialdiko antolatzaileek Erreala futbol taldeari Sagardoaren Mezularia sarria ematea. Sari banaketa atzo ilunabarrean ospatu zen Urnietako Sarobe Kultur Etxean. Juan Gorritik eginiko ikurra jasotzera errealeko presidentea, Jose Luis Astiazaran eta hiru jokalariek bertaratu ziren, Igor Jauregi, Igor Gabilondo eta Gabi Schürerer. Astiazaranen esanetan, ohore handia da sari hau jasotzea «sagardoak berekin dakartzatzen alderdien garrantzia dela eta».

Iaz saritu bai, baina ikurrik gabe geratu zen Euskaldunon

Egunkaria. Aurten iaizko zorra kitatzea erabaki dute Sagarrondotik jaialdiko antolatzaileek. Hala Juan Gorritiren bigarren ikurra eman zieten Xabier Leikuona Pilar Mendibil eta Joan Mari Torrealdairi, Euskaldunon egunkariaren izezean sarria jasotzera bertaratuakoei. Torrealdairi eskerri beroenak eman zituen. «Bereziki estimatzen dugu sari hau, hain zuzen ere zuengandik datorrelako», zioen. Bere esanetan, Euskaldunon Egunkariak eta sagardoak ezaugarri amankomunak dituzte, «biak herri berekoak, kultura berekoak, euskaldunak eta etxeok gara», zioen. «Guk ematen diegu munduari kolorea, grazia zaporea bizitasuna, aberastasuna eta anistasuna. Hauxe da unibertsal izateko gure modua euskaldun izatea hain zuzen ere», zioen Torrealdairi.

Sagardoaren kultura suspertzeko Elkartearen ordezkariak Jon Garmendiak «ohore bat da sagardoaren kultura bultzatzen saiatzea, euskaldunon ondare den kultura hori, hain zuzen ere». Garmendiak, bestalde, Urnietara gerturatutakoei asteburuan «sagardoaren lurraldean», izango diren ekitaldietara bertaratzeko deia luzatu zien, bai kontzertuetara, herri kirol-tara eta nola ez, igande goizean Astigarraran ospatuko den II. Sagado mostrara.

Sari banaketa ezezik, Sarobe Kultur Etxera bertaratuakoei «Zaharragoa, txikiagia agian» olerki eta musika emanaldiaz gozatzeko parada ere izan zuten. Guztiarekin, abiatu zen atzotik datorren igandea bitartean jaialdiz eta ikuskizunez beteta ospatuko den Sagarrondotik 2004.

Juan Gorriti eskulturgileak eginiko ikurra

GARA

DONSOTIA

Atzo ilunabarrean Errealeko jokalariek eta Euskaldunon Egunkariaren izenean gerturatutako hiru ordezkariak jasotako irudia, langa bat irudikatzen duena, Juan Gorriti eskulturgileak sortu du. Arribekoak eurrezko oinarria eta

brontzeko gorputza duen irudia eratu du.

Sinbologia anitzeko eskultura da Gorritirena. Sagarrondotik jaialdiko arduradunek Sagardoaren Mezulariak sariaren ikurra egiteko eskea luzatu ziotenean, Gorritiri berehala etorri zitzaizkion burura Araiz bailarako sagasti kuttunak, bai

eta hauek inguratzen dituzten itxiturak ere.

Itxituron barruan gordetzen da, hain justu ere, eskulturgilearen esanetan, sagastia, bai eta sagardoaren inguruan eraikitzen den Euskal Herriko kulturaren parte bat: baserria, kulpela bertsolaritza, euskal kantak, lagunartea...

dagokiena, hain zuzen ere.

Landu duen langak arestian aipatutako Euskal Kulturaren elementuei irtetzen eta hara eta hona zabaltzen uzten die, horixe da hain justu ere iaiz errealekoek egin zutena euskal kulturaren aldarri zabala europar osora zabaltzea.